

Bizkaia, biluz-biluzik

NUDISMOA BIZKAIAN Gero eta jente gehiagok egiten dau nudismoa gure herrialdean. Mundura etorri ginan moduan ibiltea «erosoagoa» ei da.

Haritz Gallastegi |

Denpora asko ez dala hondartzetan biluzik egotea txarto ikusita egoan, eta, ganera, eskandalu publiko moduan be zigortzen eben.

Gaur egun, barriz, alde bate-tik bestera amaren sabeletik ur-ten genduan moduan ibilteak lege adetik ez dauka zigorrik. Halandabe, hainbat lekutan ez dago guztiz onartuta oraindino. «Edozein leku publikotan biluzik ibilteko eskubidea daukagu. Beste gauza bat da zenbait lekutan erropa barik ibili ostean bizirik urtetea», dino Euskal Naturista Alkarteko bozeroale Jesus Maria Iglesiasek.

Nudismoa egiten daben gizon-emakumeak «erosoago» eta «askeago» sentitzen ei dira erropa barik. Baina, horren guztiaren atzean biziteko modu bat dago: nudismoa. Hau praktikan ipinten dabenek pentsetan dabe narru gorritan ibilteak, gorputz guztia marra barik eukiteko aukereaz ganera, pertsonen garapen fisiko eta tipologikoan sakontzen aukerea emoten dauela.

Herri nudistak be badagoz

Era guztietako ekintzak antolatzen ditue. Zelan edo halan, kirolak, erakusketak, jaiak... egiten ditue. «Naturismo Alkartek ondo antolatuta dagoz. EAEn, Espainian zein mundu zabalean hainbat alkar-te dagoz. Batean batzuk, eta bestean beste batzuk, ekimenak egiten ditugu —Barinetxen egiten dan lasterketak oihartzun handia izan

dau azkenaldion—. Horrezaz ganera, ekimen pribau mordo bat be egiten dirala esan behar da», dino Euskal Naturista Alkarteko bozeroaleak.

Munduko beste herrialde askotan, hondartza nudistez ganera, hotelak, kanpalekuak, zentroak... eta herriak be badagoz. Eguraldia dala eta, Euskal Herria ez ei da udako oporrak pasetako zentro bat eregiteko lekurik aproposena. «Pertsona askok eguraldia erabilten dau atxakiatzat. Ez ei dauka klima egokia. Ni neu ez nator guztiz bat teoria horregaz. Izan be, Londres inguruan egin ditue. Ingalaterran nudistendako zentroak egiteko baldintza egokiak badagoz hemen be egin leiteke. Izan be, hango klimea eta gurea antzerakoak dira», azpimarratu dau Iglesiasek.

Halandabe, Espainiako iparraldean proiekturen bat martxan ipinteko ikerketak egiten dihardue. «Gai honek ego-neza sortu dau talde naturisten artean. Asko eztabaidatu dogu. Oraindino ezer lotu barik egon arren, aukera guztiak aztertzen gabilz».

Artxandako igerilekuan, ordutegi berezia

Bizkaian herri nudistea egongo dan eguna urrun ikusten dabe Euskal Naturista Alkarteko ki-deek.

Dana dala, hainbat lekutan aurrerapauso handiak egin ditue. Bilboko Artxandako igerilekuan, esate baterako, bainua biluzik hartzeko aukerea egoten da neguan. Uretan biluzik ibilteko ordutegia daukan Euskal Herriko igerileku bakarra da. «Bilboko udalbatzarrean egin genduan eskaria. Osasun Sailak, eginbeharreko ikerketak egin ostean, ez eban arazorik jarri eta baiezkua jaso genduan. Beste leku batzuetan, barriz, ez deuskue jaramonik be egin», nabarmendu dau Iglesiasek.



INIGO AZKONA

OHIKO IRUDIA. Hondartza nudistak jentez gainezka egoten dira udan. Gizon-emakume asko sasoi bateko lotsak atzean laga eta gustora ibiltzen dira biluzik hondartzan. Kirola egiten dauenik be badago.

GETXO

15.000 pezetako isuna parkeetan bainu jantzi hutsean ibiltarren

Getxoko Udalak 15.000 pezetako isuna jarriko deutso Arrigunaga, Aixerrota eta Ereagako hondartza inguruan dagozan parkeetan bainu jantzian eguzkia hartzen dauenari. Erabagiak eztabaida galanta sortu dau herritarren artean. Euskal Naturista Alkartean be zeresanik emon dau gaiak. Jenteaurrean ze jarrera hartuko daben erabagi ez arren, ez jake asko gustau debekua alkartekoei. «Konstituzioaren 18. artikulua arabera, nork bere irudia izateko aukerea dauka. Gura dogun moduan urten geinke kalera. Udalaren jarre-reak aurrez-aurre jotzen dau artikulua di-noanaren aurka», esan dau Iglesiasek.



EGUNKARIA

Bagilaren 22tik, getxotarrek debekatuta daukie parkeetan bainu jantzian ibiltea.

HONDARTZAK

Udea pasetako zentro bat egiten daben bitartean, hondartzak dira nudismoa egiten daben jentearen topalekua. Bizkaian eskaintza nahiko zabala dauka eguzkia erropa barik hartu gura dauenak. Gitxienez hamar lekutan egin leiteke nudismoa: **Aizkorriko hondartzan (Getxo), Antxoran (Laga eta Laida bitartean), Tunel Bocan (Sopela), Salvaje hondartzan (Sopela), Meñakozen (Sopela eta Barrika artean), Barrikan (Barrika), Mar Abierton (Barrika), Matxitxakon (Bermeo), Patxa-Natxituen (Ea), eta Ogellan (Ipazter).**